

PILOTA, EZINBESTEAN

Tantoz tanto lan asko
egin du Bergarakoak
Azpeitian
kirol honen alde 20





100€

DESKONTUA MIELE
GARBIGAILU GUZTIETAN

Kalitateak miele aukeratzen du

Mielek lehentasun bat duelako: garbigailu eta lehorgailu perfektuak diseinatzea, 20 urtetako iraupena izateko testatuak, teknologia aleman berritzaileenarekin hornituak eta ur eta energia kontsumo baxuenekoak.

Mielek besteak ez bezalako ezaugarriak dituelako: arropak kontu handiz garbitzeko altzairu herdoilgaitzezko Softtronic tanbor eskusiboa eta behar guztietara egokitutako programak: antiseptikoa, expres 20, arropa berriak, pelutxeak...

Aukeratu miele. aukeratu kalitatea



Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Miele

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 127.a (2011ko apirila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730 792 /
oalegia@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerio
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Mailo Oiarzabal
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia




azpeitia
udala

**Uztarriak
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkariaren
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2011KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Izan al zara
sagardotegian txotx
denboraldian? **13**

mamia

Eneko Iribar. El
Salvadorren indarkeria
prebentzio proiektu
batean dihardu **04**
Klik! Urolako
trenbideak aurten 85
urte **16**

Euskal astoa. Giasel
astozaleen elkarteko
Joxemai Lopetegirekin
solasean **24**

jakiteko

Enkarna Arregi.
Hari eskainitako
biografia argitaratu du
Uztarrria Komunikazio
Taldeak **34**

Ba aL dakizu ETBk aurten Azpeitiko
parrokiko Aste santuko eLizkizunak
emango ditueLa? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian

943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarriak liburuxka gehiago aterako ditu)

ENEKO IRIBAR

Gizarte langilea, El Salvadorren

“Gure aldean irribar gehiago egiten dute”

Eusko Jaurlaritzaren beka bat lortu eta El Salvadorreko UNICEFen bulegoetan egiten du lana. Indarkeriaren prebentzio proiektu batean dihardu.  Ainitze Agirrezabala

Nostalgiaz gogoratzen baditu ere senide eta lagunak, euskara, mendia eta Aratz-Errekako frontoiko pala saioak, El Salvadorren daraman urte eta erdian ikasgai garrantzitsu ugari barneratu du: “etorkizunean ahalik eta gutxien pentsatzen saiatuz, egunerokoa bizitzaren garrantzia ikasten” ari da.

Nolatan joan zinen El Salvadorrera?

Orain urte batzuk kooperazio munduarekiko interesa piztu zitzaidan, arlo horretan ikasketak egin baintuen. Hego Ameriketako maiz ibilia nintzen oporretan, baina beti izan nuen han bizitzeko gogo. Hasieran, bolondres joatekoa nintzen, Alboan elkartearekin. Horretan nenbilela, Euskal



Eneko Iribar -erdian- El Salvadorren, indarkeriaren prebentzio proiektuko kideekin batera.

Herriko UNICEF-eko (Haurren-tzak Nazio Batuen Fondoa) Komiteak kudeatzen dituen Eusko Jaurilaritzaren beka bat eskuratu, eta El Salvadorra etortzeko aukera suertatu zitzaidan, indarkeriaren prebentzio proiektu batean lan egiteko.

Nola gogorazten duzu horra iritsi zinen eguna?

2009ko azaroan heldu nintzen. Egun batzuk lehenago, Ida izeneko ekaitz tropikalak txikizio latza egin zuen: 300 hildako baino gehiago, 3.000 lagunetik gora etxerik gabe... Iritsi orduko zeregin ugari izan nuen. Atera kontuak: El Salvador-eko lurraldearen %98k hondamendi naturalen bat sufritzeko aukera du.

Zein herritan bizi zara?

Segurtasun eta lanarekiko hurbiltasuna medio, Antiguo Cuscatlan herrian bizi naiz. San Salvador hiriburuaren metropoli-barrutian dago, erdigunetik ordubetera. Gune pribilegiatua da, eta ez du zerikusi handirik gehiengo bizi den herriekin. Etxe alboan UCA dago, Jesuiten unibertsitate ezaguna. Han hil zuten orain 20 urte Ellakuria erretore euskalduna.

Garai latz haiei buruz zer dakizu?

Ofizialki, gerra 1992. urtean amaitu zen, hogeitaz urte eta gero. 80.000 hildako inguru izan ziren, milaka errefuxiatu, torturak, bortxaketak, emigrazioa... Euskal Herriko hainbat gizon eta emakume —Jon Cortinak, Jon Sobrinok, Patxi Loidik— garai haiek bizi izan zituzten, elizaren eskutik gerrillari eta hango biztanleei laguntzen.

Zer lan egiten duzu hor?

El Salvadorreko UNICEFen bulegoetan lan egiten dut, Garapen arloan. Urte askotako lanaren ostean, haur eta nerabeen aldeko lege berria, LEPINA, onartu da. Horrek, nazio mailako 262 herrietan, eta horiek osatzen duten 14 departamenduetan, haurren eskubideak babestuko dituen sistema integral bat sortzea ekarriko du. El Salvador bezalako herrialde xume batentzat izugarritzko

saiakera da. Honekin zuzenki lotutako 'municipio aprobado:sello unicef' izeneko proiektuaren kudeaketan laguntzen dut.

Horra egokitzea asko kostatu al zaizu?

Ez da erraza izan. Askatasun falta handia dago, indarkeria eta segurtasun eza medio, eta argi ibili beharra dago. Bestalde, kode kulturalak ikastea ez da beti samurra. Umiltasuna, denbora eta saiakera beharrezkoak dira egokitze, eta gaizki ulertuak izaera ezberdinekoen arteko txokeetatik gertatzen dira. Ezinbestekoa da pazientzia izatea ikasteko.

Zerk harritu zaitu gehiena?

Klaseen arteko ezberdintasuna. Apenas dago klase ertaina; gehiengo txiroa da, eta gutxiengoa oso-oso aberatsa. Ez dago hiritartasunik, eta eskubideak gutxi batzurenak dira. Bizitzak oso gutxi balio du. Kultura indigenaren zapalkuntza handia dago, ia-ia desagertzearaino. Indarkeriaren kultura, kooperazio "industriaren" alde grisak...

El Salvadorrek egun zer-nolako errealitatea bizi du?

El Salvador estatu oso txikia da —Euskal Herriaren tamaina du eta hiru aldiz biztanle gehiago—, txiroa eta konplexua. Gerra eragin zuten arrazoi objektiboak —ezberdintasuna, txirotasuna, justizia eza— antzerakoak dira gaur egun ere; aldiz, subjektiboak —kontzientzia, solidaritatea, borrokarako grina, komunismoaren eragina— desagertzen ari dira. Dolarra da hemengo txanpon ofiziala, eta deskulturalizazio handia dago: nonahi daude AEBetako kultura, hizkuntza, janari, arropa eta zerbitzu enpresak. Hezkuntza maila eta ikasteko aukerak oso murriztak dira. Osasun esparrua, gizarte-segurantzak... oso eskasak. Emigrazio handia dago: El Salvadorreko lautik bi beste herrialde baten bizi da, gehienak AEBetan. 'Mara'-k deituriko talde kriminalek gazteez osatutako armadak dituzte. Narkotrafikoa eta, ondorioz, ustelkeria eta indarkeria han-

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1975eko urriaren 29an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** 2009ko azarotik El Salvadorren dago, Indarkeriaren prebentzio proiektu batean.

||| **Lanbidea.** Gizarte langilea.



“Indarkeria eta segurtasun eza medio, argi ibili beharra dago”

“oso barneratuta dute indarkeriaren kultura”

dia dago. Emakumeen egoera latza da, haurrei abusuak...

Nolakoak dira salvadortarrak?

Samurrak, alaiak, berritsuak, *buloso*-ak, etxekoia eta familia-maiteak. Lanean eta kalean 'erritmo tropikala' dute, eta gu gatorzen kulturatik etorrira, ez da ikasteko erraza. Erlijioak paper garrantzitsua du. Ez dut inoiz ezagutu horrenbesteko aukera erlijiosoa duen herririk. Edozein herri txikitan, hiruzpalau eliza topa ditzakezu. Zoritxarrez, horietako asko negozio hutsak dira. Ia urte guztian eguzkia eta bero handia dago, paisaia ederrak, eta egunerokoa bizi eta gozatzeko gaitasun handiagoa dute. Nahiz eta egoera latza izan, gurekin alderatuta, irrifar gehiago egiten dute. Maiz, guztiz ulertzeko gai ez naizen jakinduria ezkutatzan dute. Zoriotxarrez, indarkeriaren kultura oso barneratuta dute eta eguneroko bizitzan oso presente dago.

Ze-nolako etorkizuna du El Salvadorri?

Beltza. Nahiz eta ahalik eta baiko-rrena izan, egoera oso zaila da. Behar, arazo eta mehatxu handiak dituzte. Herri honi [El Salvadorri] honena opa diot, baina gerrak lortu ez zuena, ez dut uste orain, bere kasa lortuko denik.

Zer-nolako esperientzia ari zara bizitzen?

Etorkizunean ahalik eta gutxien pentsatzen saiatu eta egunerokoa bizitzaren garrantzia ikasten ari naiz. Nahiz eta urte asko eman Azpeititik kanpo, han ditut sustraiak eta herrinak tarteka bisitatzen nau. Hemen ikasten ari naiz beharrezko ditugun hainbat luxu eta erosotasun gabe, bizitzari zukua atera dakiogekula. Agian, "krisi" garaiak ikasgai hori ekar dakiogukete. Elkarriketa hau probestuz, agur berezia bidali nahi nieke gurasoei, senideei, lagunei eta herritar denei. Aipatu baita ere, inork El Salvadorra laguntza borondatea bidali nahiko balu Uztariaren bidez harremanetan jar dadila.✕

Letren errepublika

Hasi da udaberria eta berarekin txangoak egiteko aukera handitu da, aire zabaleko ekintzak egiteko tenorea iritsita. Baina badira urtaroei erreparatu gabe urte osoan kanpoko argia ikusten ez duten elementu batzuk: gure etxeko apaletan eta liburutegietan dauden liburuak eta idatziak. Beraiek omenaldia izango dute Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 23an. Hain zuzen ere, egun horretan baina XVII. mendearen hasieran, literatura unibertsalak eman dituen bi idazle oparoenetakoak hil ziren: Shakespeare eta Cervantes, hurrenez hurren.

Liburuek gure espezieak sorturiko hizkuntzaz baliaturik ideiak, pentsamenduak, kontakizunak eta istorio desberdinak ondorengo belaunaldie ezagutarazteko aukera ematen dute, ezinbesteko tresna bilakatuz gizartearen garapen mailan aurrera egiteko. Heinrich Heine poeta alemaniarrek zioen bezala: “Liburuak erretzen (ulertu baztertzen) diren lekuan gero pertsonak erretzen dira”. Horrela, liburuak urte osoan hor egoten dira guk noiz haien orrialdeak behatzekin mugituko. Izaki bizidunak balira ziur jeloskor egongo liratekeela gure gizarte honetan hain garrantzitsu bihurtu diren ikus-entzunezko baliabideez.

Ameskeriak alde batera utzita badira, aldiz, izaki bizidun batzuk beraiei bizia emateaz eta zaintzeaz arduratzen direnak. Asmatuko zenuen bezala, idazleei buruz ari naiz eta hain gutxitan sentitzen duten aitortza soziala merezi dutelakoan nago. Hain irakurtzeko ohitura gutxi duen gizarte honek ez die gure sostengua adierazten eta uste dut badela garaia hori aldatzeko. Eta ziur nago beraiek ere bat etorriko direla esatean, egin diezaiokegun omenaldirik onena liburuak irakurtzea dela.

Irakurketa ohiturak sustatzea denon ahalegina izan beharko luke, hasi ikastetxeetatik eta familia eremuraino. Ezin dugu jarrera epela izan gai honetan, esanez irakasleen edo erakunde publikoen ardura dela belau-



■■■■■■■■■■markel mendizabal■■■■■■■■■■


■■ Heinrich Heine poeta:
“Liburuak erretzen diren
lekuan gero pertsonak
erretzen dira”

naldi berriek irakurtzeko ohitura izatea. Noski, ikastetxeetan idazleekin antolatzen diren solasaldiek eta liburutegi publikoak izateak lagundu dezaketela irakurketa sustatzen, baina ez ahaztu familia giroan ere gauza anitz egin daitezkeela liburuari eta, luzapenez, idazleei, aukera emateko gizarteko ezagutza maila handitzen.

Herriko uzta oparoa

XIX. mendera arte medikuen, abokatuen, elizgizonen eta merkatarik batzuen etxeetan aurkitzen genituen Azpeitian liburutegiak. Baina XXI. mendearen hasieran, alfabetatze mailaren hazkundearekin, herritar guztiek dugu aukera herriko eta munduko jakintza jasotzen duten liburuak eskuratzeko, liburutegi publikoei esker. Ildefonso Gurrutxaga aitzindari gisa hartuta gure herriko idazleek sorturiko uzta oparoa dastatzeko aukera izango dugu horrela.

Beraiei guztiei ere nire aitortza doakie. Ea denon artean, idazle eta irakurle, Letren errepublika iluntasunetik atera eta udaberriko argira ateratzea lortzen dugun.✱



urrategideko

altzariak & sukaldeak



círculo
muebles



- Sukaldeak
- Sofak
- Haurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak



1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es



Kontrasteak

Lanaren atzetik mugitzera behartzen zaitu ofizio honek, zure auto, traste eta pentsamenduekin, leku berri eta desberdinetara. Leku horietara egokitzen saiatzen zara, eta lekuek etengabe eragiten dizute, bai paisaiak eta inguruak, nola jendearekiko harremanak ere. Gehienbat azken honek.

Harrizko kanpandorre itzelaren oinarrian dut lantokia; Murtziako katedrala, sakristia. Elizaren altzari bat zaharberritzeak eman dit azken bederatzi hilabeteotan lana eta bizitzeko dirua, hegoaldeko hiri honetan. Pentsatzen jarrita, gezurra dirudi jaioterritik 800km—tara mugiarazi nauen lanaren funtsa apaiz batzuei altzaria konpontzea izan dela.

Azken egunak ari gara betetzen, eta obra amaierako tentsioa nahiz nekea nabariak dira, baina *rollo* txarrik gabe.

Elizan pasatzen ditut eguneko ordurik gehienak. Egunen joan etorrian, lau pareta lodiren artean pixkanakako geure jardunean, lau pertsona, bakoitzak bere istorioarekin. Paretan kanpokaldean, ahotsak, zarata, argia, musika hotsa, jendea libre hara eta hona. Barruan, berriz, erritua, meza eta intzentsua, isiltasuna, itxitasuna eta arauetik loturak. Bi mundu horien artean, argizari usaina eta mp3 edo irratiko musika airean.

Zaharberritzen ari garen txokolate koloreko altzariak guztiz inguratzen gaitu; kaxoi eta ateak nonahi ikus ditzakezu, betirako asmoz eginiko saildu irudi eta animalia mitologikoe-kin; deabru aurpegi eta aingeru mamitsu biluziak, landare eta hosto talla finak. Izugarritzko lana, gaur egunerako pentsaezina: zenbat talla hainbat izerdi, esku, materialerako zuhaitz eta diru. Guzti hori orain dela 500 urte ingurutik gaur arte, sute bat barne.

Lanorduak amaitutakoan, bizikleta hartu, lankideak agurtu eta kanpoko mundura jo ohi dut. Gran Via-ko errepidean barneratuz gero, lehiaketa baten modukoa da etxerako bidea. Burdinezko animaliak kaleko oihanean, gorpilak nonahi, bozina hotsa segituan, autobus,



ioosu salegi


Gezurra dirudi jaioterritik 800 km-tara mugiarazi nauen lanaren funtsa apaiz batzuei altzaria konpontzea izan dela

kotxe eta motoak, zein baino zein azkarrago. Pare bat bidegurutze, eta pixkat aurrerago kale estuak, eta etxeko lasaitasuna.

Kontrasteak beti, edonon

Azkenaldian, objektuz beteriko txoko eta hiri-ko egunerokotasunetik irtetzeko joera hartu dut denbora librean. Batik bat bakarrik geratu naizenetan, herrimina eta etxeko babes hurrun somatu ditudanetan. Bizikletaz eta trenez Murtzia eta Alakanteko kostaldeetara joan naiz, itsasoaren bila, zabaltasunera beti. Olatuen soinuak lasaitzen nau eta uretan sar-
tzeak berpizten.

Udan argiak itsutu eta beroak ito baninduen, gauean lorik egin ezinik, egunez leher eginda, sendagarriak dira hemengo argitasuna, epeltasuna eta giro ona neguan. Batik bat, hondartzako baretasuna eta bakea ditut gogoko. Baita lurraren kolore marroiak nabarmetzen dituen, laranjondo nahiz almen-
drondoz beteriko lautada, eta baratzeen gaitetik barreiatzen den, eta Mediterraneoko itsasoaren ur epeletan sakondu eta amaitzen ez den zeru hori ere.✱





GORENAK

EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK
BIDAS SHELTERS
DEL TAD VALCO

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



WWW.SAGARDOGORENAK.COM

HAUEK IZAN DIRA AUKERATUAK.
PROBARIK GOGORENAK GAINDITU DITUZTELAKO.
KALITATE ETA PROFESIONALITASUNEN NAGUSI DIBELAKO.
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



GORA. Jostun iaioak euskaraz dantzatzeko du orratza.

Eskaintzen den zerbitzua euskaraz jartzea garrantzitsua da euskararen normalizaziorako. Gustua ematen du halako kartelak ikusteak! 📌 Uztarria



BEHERA. Olagarro eta pintxoak prezio onean; euskara garesti.

Badirudi euskara garesti samar dutela. Saltoki, jatetxe eta abarretako kartelak euskarara itzultzeko zerbitzua eskaintzen du Udal Euskara Patronatuak. 📌 Uztarria*



Manuela Seguro.

ESANA DAGO

III “Izugarria izan da [lurrikara]; autoak nola irauli diren eta eraikinak nola puskatzen ziren ikusi ditut”

MANUELA SEGUROLA
Tokion bizi den moja urrestildarra

III “Lanarekin oso gustura banengoen ere, ez nuen irabaztea espero”

ERIKA OLAIZOLA
aktorea

III “Diegok bere lagunak ekartzen zituen maratoi erdira, orain guk hori eskertzeko txanda da”

AGUSTIN JIMENEZ
Azkoitia-Azpeitia
Maratoi Erdiko antolatzailea



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



|||||||txetxu urbietta|||||||

Gorria gorroto

Gizakiaren ibilia ezkerretik eskuinerakoa omen da. Dakitenek, edo jakin beharko luketenek, hori diote, behintzat. Che-ren parreko iraultzaile izatetik Intereconomiako jarraitzaile sutsu izatera (dakitenek esandakoaren irakurketa librea).

Pentsakeraz oraindik ez (inoiz ez iritea espero), baina ekintzaz ni neu ere norabide berdinean noa. Halere, Guevara jaunaren muturretik ez nintzen abiatu eta Conde eta konpainiaren beste muturrera iristerik ere ez dut espero.

Egia aitortu behar bada, ez naiz inoiz gau-txori ultraberantiarra izan, baina bere garaian ni neu ere Gau Txori diskotekan ordu extrak sartutakoa naiz. Festa eta jaia, algara eta juerga, gustuko, oso gustuko izan ditut. Baina orain, festa, zarata, burrunba, zenbat eta urrunago izan, ni neu, are eta gusturago.


Gure herrian, Azpeitian –festen erreinuan–, ez da inolaz ere erraza festari ihes egitea. Zaila da haurrak badituzu. Santotomasetan hasi eta inauterietan amaitu, dekretu legez, zure agenda besteen esku daukazu, zure autonomiak eta independentziak jai du.

Gustatu ala ez, artaldean sartu eta inoiz nor den jakingo ez dugun artzainaren atzetik otxan-otxan. Igandekoak ez diren egutegiko egun gorriak gorroto ditut. Egunerokotasuna da nire paradisu.

Pobre izatearen ondorioa edo nortasun pobrearen ordaina.

Jesus Jainko jauna, behingoz, gurutzean josi dezatela. Hor amaituko da betirako nire penitentzia.✘

|||IKUSTEKO|||



▲BA AL LEIKE?

Orri zuri baten gainean gauzak okerrago jartzeak lanak ditu. Euskaraz jakin ez nonbait, eta gaztelania erabiltzea erabaki, oso hala moduz bada ere. Baina gaitzerdi, okerrera hori balitz. Anonimotasunetik giza-talde oso bati delitua egotzi, eta lasai asko, gainera! Jose Artetxe kaleko karrera baten kanpoan egon da 'perla'. ✉ Mailo Oiarzabal 📞 Ainitze Agirrezabala✘

MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Garatzen

XEDEAK. Jubilatuta eta pentsiodunek agente aktiboak izatea aldarrikatu dute. Adinak ematen duen esperientzia eskaini, eta bizitza duin baterako eskubidea eskatzen dute. Nork jakin dezake beraiek baino hobeto eskaintzen zaizkien zerbitzuen egokitasunaz? Kontuan hartuak izan, eta hainbat gairen inguruan eztabaidatu eta erabakietan parte hartzea lortzea dira Garatzen elkartearen helburuak.



izaskun egiguren



Zirkulua oinarri hartuta

AUSARTA. Erika Olaizolak Amasa-Villabonako II. Bakarrizketa Lehiaketa irabazi du. Lana ausarta da gaiari begiratuta eta eszenatokian lortzen duen interakzioa dela eta, ikuslea bakarrizketan harrapatzea lortzen baitu. Tajuzkoa da esatea antzerkiak, gurean, etorkizun oparoa duela.



Konpromisoa

MOSAIKO ERRALDOIA. Gernikako akordioaren sareak deituta, 400 pertsona inguru elkartu ziren Loiolako basilikaren aurrean *konpromisoa* hitza osatzeko mosaiko erraldoia egiteko. Argazki erraldoia izan zen martxoaren 5ean ateratako hura, konpromiso erraldoi bezain sen-

doa erakusteko asmoarekin egina. Guztion eguneroko ekintza txikiak aurrerapauso geldiezinak izango baitira; guztion hitza errespetatuz, aurrera begirako konpromiso tinkoa erakustea bezalako indar-bultzatzailerik ez baitago.✘

INKESTA

sagardotegian
izan al zara txotx
denboraldian?

 Ainitze Agirrezabala

LUIS ARZUAGA

erretiratua



"Parlamentariei
aulkiak kendu
beharko
litzaizkieke, erdi

etzanda, lotan daudela
zapaltzen baitute legea
onartzeko botoia.
Sagardotegian jan eta edaten
den bezala, egin dezatela zutik,
fundamentuz lana".

JOSE LUIS IRIARTE

fruta saltzailea



"Aurtengo
denboraldian sei
bat aldiz joan naiz
sagardotegira, eta

sagardorik politena
Sarasolakoa dela esango nuke.
8 plazako taxian joaten gara,
autoa hartzerik ez baitago".

JOSEFA GURRUTXAGA

azokan postua du



"Ohiturarik ez
dugu joateko,
sagardoa ez zait
asko gustatzen-

eta. Urdaira sagardotegira,
ordea, joateko asmoa badugu,
intxaurrek eta gazta geuri
erosten dizkigute eta".

ROSAMARI ALBERDI

erretiratua




"Ez dut ohiturarik
sagardotegira
joateko. Baina,
joateraz eserita
jatera joango nintzateke.

Gizonak eta haren lagunek
txoko bat dute txotxarekin, eta
hara joateko asmoa badut".*

Usainak eta kiratsak

Agian bati baino gehiagori arraroa egingo zaio, baina Azpeitira itzultzean poztu egiten naiz kalean nabilela inguruko larreetan zabaldu duten simaurra usaintzen dudanean. Oñazko zelaietatik herriko kantoietara, euliak soilik erakarri ditzakeen usaina sudurrera ekartzen digu tarteka hego haizeak.

Orain aste batzuk entzun nuen, ordea, mendia erditik zulatuko duen saihezbidea egiteko proposamena egin dutela, maiatzean garapen jasagarria gau eta egun aldarrikatuko duten horiek. Sei tunel eta lau zubi izango omen ditu lau kilometroko tartean. Kostuak, aurreikuspenen arabera, 66.000.000 eurokoak. Txukunagoa omen da zenbaki bati sei zero jarri ordez "milioi" letraz idaztea, baina norbere kontu korranteak hiru edo lau zifratatik pasatzen ez direnean, behar sozialetarako dirurik ez dagoela diotenean, ez eta pentsio sistema duin bat izateko ere... zein erraz gehitzen dizkieten zifrak zenbakiei konstruktoreen sakelak betetzeko direnean!



yuri agirre

Oñatz magalean, berriz, Loiola arteko bidea etxetz bete dute, eta Esklaba inguruak ere bidean omen dira. Ez du lan makala propaganda banatzaileak, Gaztetxe paretik Loiolaraino publizitatea buzoneatzen. Noiz eta ehunka buzoi hautsez beteta eta beste horrenbeste etxe hutsik aurkituko dituenen. Ondorengoei esango diegu, nahiz eta agian beraiei sinestezina egin, gazteak ginenean Loiola eta Azpeitia artean zelaia eta baratzeak zeudela, eta hego haizea ibiltzen zenean, autoen zarataren ordez simaur usaina iristen zitzaigula herrian genbiltzanon sudurretara. Ez dakit orduan ez ote diren errotondak izango *Azpeitico*-ko berdegune bakarrak.

Eta usaina aipatu dudala, ezin bada kiratsa aipatu gabe utzi. Ez, ordea, simaurrarena, ziurrenik kolonia onenak erabiliko dituzten konstruktore eta politikarientzat, baizik. Jasanezina da! Iturriagari eta Elorzari kasu egin beharko: "Kiratsa badario estalkirik ez herts, jarri gainean lasai eta egin amets".*

galDETZEN hasita, Azpeitian zergatik ez
da Arbolaren Eguneako ospakizun edo
ekitaldirik antolatzen?  Uztarria

Erlijioa

Joan den hilean agertutako datuen arabera, Euskadiko gazteen %44ak "ez-erlijioso" aitortzen du bere burua. Baina horrek ez dit ezer funtsezkorik esaten gure gazteei buruz.

Bistan da, izan ere, "erlijioa" diotenean zertaz ari diren: munduaren gain edo munduaz aparte eta guregandik kanpo dagoen nolabaiteko "Jaun goiko"ren bat badela uste izatea, elizara edo meskitara edo zentro budistaren batera joatea, gotzain edo imam edo lamaren baten esanera bizi izatea... "Erlijioa" hori bada, ez naiz harritzen gure gazteen erdiak "ez-erlijioso" direla esatea, nik neuk ere, galdetuko balidate, ez bainuke oso ziur jakingo zer erantzun: "erlijioso" naizela ala "ez-erlijioso" (nahiz eta igandero txintxo —eta gustura— joaten naizen mezatara Arroa Beheko elizaxora).

"Erlijioa" hori bada —alegia, gauza irrazionalak sinestea edo autoritate sakratua omen duen norbaiten meneko izatea—, benetan harrituko nindukeena



joxe arregi


ez da gazteen erdiak "ez-erlijioso" izatea, beste erdiak "erlijioso" izatea baizik. Hala omen dira: %8a katoliko praktikanteak —ez dakit non sartzen diren, nik ez baititut elizetan horrenbeste ikusten—; %42a, berriz, katoliko ez-praktikanteak—nola izan daitekeen norbait katoliko "ez-praktikantea", hori ez dakit oso ondo: zuk ba al dakizu nola izan daitekeen norbait "begetariano ez-praktikantea"?—; eta azkenik, %6a beste erlijioetako kideak.

Baina tira, hamaika aldiz tronpatzen gaituzte hitzek, eta "erlijio" hitzak zer esanik ez. Ez da funtsezkoa "ez-erlijioso" omen denaren sinesmen-eza, ezta "erlijioso" omen denaren sineskizuna ere. Zer da, bada, funtsezkoa? Edertasunean, isiltasunean, oinazeen... edonon ageri den Misterioaren aurrean, Misterioaren baitan, begiak zabalik eta bihotza samur edukitzea. Hori bada, ez dio axola "ez-erlijioso" izatea. Hori ez bada, kalterako "erlijioso" izatea.*



F
L
O
W
E
R
P

W
E
R



Atez atekoa

Azpeitiarrek erabaki dezatela zernolako herri mota nahi duten: kartelez jositako herri bat, atez ateko sistema zaborrentzat eta elkarbizitza tirabiratsu bat, ala ohitura bizi-biziak dituen herri bat, partehartzailea, lana eta alaitasuna duena. Ez dago beste aukerarik". Jesus Mari Larrañaga (EAJren alkategaia)

Kuriosoa egin zait baten batek atez ateko zabor-bilketa 'gauza txarren multzoa'-n sartzea. Izan ere, ebidentea da eraginkorragoa dela atez atekoa: hauteskunde bezperaren bezperan atez ate banatzen ditu boto-papearak alderdietako jendeak, eta benetak Jain-

koa berena dela esanez arima salbatu nahi digutenak ere atez ate ibiltzen dira predikuan. Hor goiko hitzak publizitate-politikoak zeukan aldizkari batetik atera ditut, eta gure karreraren ate-kanpoan publizitatea jasotzeko daukagun otarran bota izan balute ziurrenik ez nituen irakurriko, baina baten batek atez ate banatu behar zela erabaki zuen, jende gehiagok irakur zezan, eta nik irakurri. Argi dago, atez atekoa eraginkorragoa da.

Kuriosoa da argumentatzeko modua ere, ez baita esaten "gure proiektua ona da", "besteena txarra da" baizik, eta politika horre-

la egitea beste batzuei egotzi izan zaie urteetan.

Atez atekoaren kontrakoek diote ezin dela jendea behartu, eta garestiagoa dela. Behartzeari dagokionean, Udalak gauzak era jakin batean egitera behartzen gaitu askotan. Bestetik, azpeitiarroi, urtean 390.000 euro kostatuko zaigu errauste-planta. Atez atekoa hainbeste kostatuko ote da?

Ez dakit, begien bistan dagoena ez da beti egia izaten, eta egiak tolesdura asko izaten ditu, baina begien bistan ez dagoena sines-teko ere fede handia behar da.✱



■■■■■■■■■■ eñaut frantzesena ■■■■■■■■■■

■■■ GUTUNA ■■■■■■■■■■

Mendekurik ez

Berrogei urteko dikta-duraren ondoren, beste 35 trantsiziokoak igaro dira, eta denbora guzti horretan gertatutakoen berri emateko galtzaileek eduki duten beldurrak eraginda, isiltasuna nagusi izan da gure artean, eta bazirudien garaikide den memoria historikoa ahanztzia gelditu behar zuela. Zorionez, azken aldian, bat batean, arrapaladan, orduko gertaera lazgarriak azaltzen hasiak direla: indusketak, idatzia, filmak, erreportajeak... Zorionez diot, bestela biktimak birritan kolpatuak izango ziren, biktimak izanagatik eta haien memoriaren ahanzturagatik.

Urtarrileko Uztarrria aldizkarian argitaratutako erreportaje batean esaten zitzaigun gure herri inguruan ere, gutxienez, bost hilotz daudela gerra ondorenean fusilatutak: hiru Urrestillan eta beste bi Aratz-Erreka inguruan.

Paradoxak

Izarren Argia filmean, Saturrarango 2.000 emakume inguru egon ziren espetxean gertatzen

zena kontatzen zaigu, han zeuden lekaimeak gosea nola erabiltzen zuten, amak beren haurrak frankisten eskuetan uzteko, bizirik iraun zezaten. Han egon zen Carmen Riera preso ohiak adierazi du, nola aste batean, 1940. urteko abuztuan, 30 bat haur hil zirela espetxean.

Deigarria da Nafarroan erabilitako errepresio bortitza, lurralde horretan frontierik ez zela egon kontutan hartuta. Iruñeko San Kristobal espetxe bihurtutako gotorlekuan, ihesaldi baten ondoren, 797 presotatik hiruk besterik ez zuten lortu bere helburua; beste denak harrapatu, eta ondoren sarraski eta 'garbiketara' lazgarria egin zuten.

Eta, Altsasuko gertaerak, han egondako apaiz baten idatzietan oinarrituak, eta *Berri Ona* filmean kontatzen dena.

Nafarroako Sartaguda ezaguna da 'Alargunen herria' bezala, herri txiki bat izanik bertako 37 gizonetako, errepublikaren aldekoak, fusilatutak izan ziren, tartean sozialista asko. Paradoxa da herri

horretan alkatetza UPN alderdiaren esku egotea.

Izua eta ikara sortzen digu Maravillas Lamberto izeneko 14 urteko neskatoaren kasu ezagunak: Larragan (Nafarroa) bere aita Vicente, sozialista eta UGTko militantea atxilotzera joan zirenean, bere alabak berarekin joan izan nahi zuen, Goardia Zibila eta berarekin zihoazen falangista eta erreketek ados azaldu ziren, eta herriko udaletxera helduta, aita giltzaperatu eta alaba behin eta berriro bortxatu zuten, aita ziegatik dena entzuten zuen bitartean, eta hurrengo egunean aita-alabak erail zituzten. Ondoren, gorputz biluztuak Maravillasen bota egin zituzten, txakurrek jan zitzaizten.

Beste paradoxa bat da gaur egun fusilatutakoen kideak, Nafarroako sozialistak, borroka frankista haien oinordekoen sostengutako direla Nafarroako Gobernuan.

Orduko borroka haiek ez dute sekula damurik agertu, ezta barkamenik eskatu ere. Gehiago esangio nuke, etekin eta onura

galantak atera zituzten egoera hartatik; fusilatutako eta errepresiotik ihes egindakoen ondasunak bereganatu zituztenak, haien postu, ofizio eta negozioen jabe egin zirenak, lurrak eta etxaldeak konfiskatu zituztenak, eta nola ez, lapurtutako haurren guraso bihurtu zirenak.

Hori dena gauzatu eta egin zuten ondorengoak eta oinordekoak ari dira orain mendeku eske, ETAko preso politikokoak bizi guztirako espetxean usteldu daitezzen ahaleginean.

Justiziak zuzena izateko berdina izan behar du denentzat; ezin du batzuen ekitzen aurrean itsu gelditu eta besteenean lupa erabili eta justiziaren ordezkaria ezarri, legeak hala diola esanez.

Gauza bat da legea —ikusi besterik ez dago nola manipulatzeko— duten boterearen mesedetan —eta oso bestelakoa zilegitasuna.✱

■■■ higinio oiartzabal ■■■

(Azpeitia)

Geltoki hutsak

Duela 85 urte, 1926ko otsailaren 22an, inauguratu zen Urolako trenbidea. 60 urte egin zituen martxan; gero ordezkio autobusak jarri ziren. 📌 Uztarria 📍 Gaizka Otamendi



▼ AGUR TRENARI.

60 urtean zerbitzuan egon ondoren, 1986ko uztailaren 14an bere azken bidaia egin zuen Urolako Trenak, eta 1988an betiko ixtea erabakia hartu zen, herritar askoren eta asko trena kentzearen aurka azaldu bazen ere. 60. hamarkadan merkantzien garraioa errepide bidezko garraioak ordezkatu zuen, trenari nabarmen eraginez.



▲ ZUBIRIK ZUBIRI...

Trenbideari izena emango zion Urolako ibaiaren bidea egiten zuen, zubien bidez batetik bestera zehazkatuz ibilbide osoan. metro zabaleko trenbidea zen.

▼ MATERIAL MUGIKORRA.

Bidaiaientzako zazpi automotore elektriko eta 21 bagoi eta merkantziarentzako hiru automotore eta 80 zamabagoik osatzen zuten material mugikorra.





▲ **36 KILOMETRO.**

Zumarraga-Zumaia arteko trenbidea 36,613 kilometrokoa zen. 20 zubi eta 29 tunel zituen. 17 geltoki eta garaleku zituen. Aurreneko urtean 200 lagunek jardun zuten lanean. Gerra Zibilaren ondoren 100 pertsonara murriztu zen langileria.

► **MERKANTZIEN GARRAIORAKO?**

Eusko Jaurlaritzaren Merkantzien Negoziorako Planak, Pasaiaiko portua eta Irun eta Azpeitia arteko garraioa jasotzen ditu, txatarra eta siderurgiako produktuen trafikoa erraztuz. Hainbatek salatu dute Corrugados Gallardo enpresarentzat soilik jarri nahi dela tren, pertsonen garraioa baztertuz.

▼ **AHUNTZAK LAN**

Denborarekin usteltzen joan eta pasealeku bezalako ondare leku asko igarotzea ezinezkoa da tunelak edo sasiak jandako kableak. Ahuntzak dira horien eguneroko garbitzaile bakarrak.



GILE BAKAR.

den trenbidea bidegorri
loekin hornitu da. Beste
a da, lurrez betetako
ideak daudelako.
oko



▲ TRENAREN ITXIERAREN KONTRAKO PINTADAK.

1986. urtea erabakiorra izan zen Urolako trenarentzat, bertako langileen nahiz bizilagunen manifestaldi eta mobilizazioek ezin izan zuten trenaren itxiera sahiestu. Egun, geltoki asko hutsik daude; beste asko, birziklatu egin dira: musika taldeentzako entsegu lokalak, etxebizitza okupatuak... dira. Trenaren museoa ere bada Azpeitian, tren-linearik ez dagoen herrian.

▼ GELTOKIAN, TRENA NOIZ IRITSIKO.

AHTren eraikuntzak tren sozialaren aldeko eztabaida piztu du. Urolako trafiko arazoak bistakoak dira, eta mugimendu horrek gero eta ohiartzun handiagoa du bailaran, herrien arteko trenbide sare eraginkorraren eskaera goraka baitoa. Beraz, geltokian geratuko gara zain, trena iritsi arte.✱



PATXI AZKARGORTA

Ilunpe pilota elkarteko lehendakaria

“Frontoiak estalia behar du, baina alboak-eta Libre dituela”

Etxea eta lana frontoi atarian, eta pilotazale amorratua izanda, “beharko heldu” pilotari. Eta bidaltzen duten arte jarraitzeko pronto. 📝👁️ Ainitze Agirrezabala, Mailo Oiarzabal

Eguneroko siestarekin kunplitu ondoren hartu du etxean Uztarría Patxi Azkargortak. 85 betetzear, buruan arma sare gutxi du, eta hizketa gozo egitea atsegin duela antzematen zaio; pilota gustatzen zaion adina, ia-ia. 62 urte daramatza Azpeitian, baina ez du Bergarako hizkera galdu.

Pilotarako duzun zaletasuna Bergaratik al datorkizu? Bai. Bergaran ere ibilitakoa naiz pilotan; jokatzeko aurrea, eta txapelketak antolatzen gero. Afizionatuetan jokatzeko nuen. Patxi

Arriola nuen gehienez bikotekide. Deba bailarako herriartekoa jokatzeko genuen.

Azpeitian nolatan sartu zinen pilotaren munduan?

Ezkondu eta 24 urterekin etorri nintzen. Tindatzailea nintzen, eta komertzial batek esan zidan Azpeitian ez zegoela tindategirik. Lekeition tindategi berri-berri bat itxi egin zuten; hura oso-osorik erosi eta Azpeitira ekarri nuen, hemen lokala bilatuta. Kasualitatea, frontoi aurre-aurrera etortzea eta, nahi gabe, beharko sartu. Orduan hasi nintzen pilota txapelke-

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1926ko apirilak .

|||**Herria.** Bergara. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Jubilatua.

tak antolatzen zituztenei laguntzen. Landeta aldean-edo bizi izan banintz, beharbada ez nuen horrenbesteko hartu-emanik izango pilotarekin. Baina aurrez aurre frontoia bertan izanda, erderaz esaten den bezala ‘por co-jones’ beharko heldu pilotari.

Garai hartan pilotak ba al zuen indarrik Azpeitian?

Bai, bazegoen zaletasuna. Nik jokatu ere egiten nuen: okindegi

berriaren goian bizi zen batekin, Flakonekoa. Bailarako txapelketa, *Cuenca del Urola*, jokatzeko genuen. Denera igoal izango ginen dozena bat bikote edo.

Ilunpe pilota elkarteko presidentea zara, sorreratik.

Esanda daukat nik ez dudala presidente izan behar, beste batzuek izan behar dutela, badaude-eta merezi dutenak. Baina, *vitalicio* esaten didate. Barre eginez esaten dut, bidaltzen ez nauten bitartean hortxe segituko dudala.

Ilunpek harrobiarekin lan handia egin du.



Bai. Mutikoein lana egin behar da. Hor lan handia dago. Orain ez didate uzten lehen bezala horretan lana egiten. Beste batzuk ere badaude. Erakustaile onak daude, jende ona. Hor mutikoei bide bat erakutsi behar zaie. Beren erara erraz uzten badiezu, ba... Pixkat estutu egin behar izaten dira.

Hasierako garaietan pentsatzen al zenuen Azpeitiak Herriarteko Txapelketa irabaziko zuela?

Bai, Gipuzkoako txapeldunak izan ginen aurrenekoz 2004an [2008an bigarren ez eta 2010ean berriro]. Akordatuko ez naiz ba! Herrian egundoko harreara egin ziguten, polita izan zen.

Bailaran Azkoitiari lekukoa hartu diozuela esan al daiteke?

Ni hona etorri nintzen garaian, alde handia zegoen batetik bestera. Hemen txapelketak ipini ge-

nituenean, azkoitiarrak etorri eta *frist!*, haiek eramaten zuten txapela. Orduan, hemengo mutikoak *errealeko* pilotarekin ibiltzen ziren. Izen hori antzinatik zetorren. Xubeldianeko dendan saltzen zituzten *errealeko* pilotak; garai batean, pilota klase hura erreala kostatzen zelako. Gero, bost duro kostatzen zen.

Errealeko pilota hura nolakoa zen?

Erabat eramaten zuten hemengo mutikoek. Bazegoen beste bat, *baratoko* pilota esaten zitzaiona. Hura pilota-pilota zen. Errealekoa dezente makalagoa zen, hasiberriak ziren mutikoentzat. Azkoitiarrak ohituta zeuden Kontzejupean-eta *baratoko* pilotarekin jokatzen. Eta, hona etortzen zirenean erraz irabazten zieten hemengo-ei.

Zeu horren pilotazalea izanda, pena al duzu bi semeak futbolariak atera direlako?

Bai eta ez. Haiek ere kirolariak izan dira, kirolaren bidetik ibili dira. Biak entrenatzaile nazionalak dira. Iñakik titulua badu Espainiako edozein talde entrenatzeko, eta Xabierrek zer esanik ez, mundiala ere bai. Beno, beraien afizioa hori da eta... Alaba, Irune, zen pilotaria. Neska koskorra zela, bere adineko mutilekin-eta aritzen zen pilotan. Eta ezkerrekin, beti.

“Aurrez aurre frontoia izanda, beharko heldu pilotari”

“Mutikoei bide bat erakutsi behar zaie. Beren erara uzten badiezu...”

Kalkuluak botatzen hasita, zenbat ordu egin dituzu Frontoi Txikin?

Asko, bai, eta orain ere bai. Orain, gehien bat Keuttin [Jesus Ruiz Argandoña] eta Beobide aritzen dira. Neguan hotz egiten du han egoteko eta medikuak ere esana dit: ‘Patxi, kontuz e! Hori toki hotza da’. Semeek ere esaten didate. Pixka bat utzita nago. Garai batean hantxe egoten nintzen egunero, mutikoek nola jokatzen zuten ikusten. Eta, orain ere badatoz, e!

Ba al dituzu begiz jotako mutikoak?

Bai, eta pilotan oso poliki egiten dutenak. Orain, jarraituko duten martxa horretan? Hori beste kontu bat da.

Udaberrian sartuta, orain sarriago joango al zara frontoira?

Egunero ez dakit, baina joaten hasiko naiz, arratsaldetan. Keutti-

nek hala esaten dit: 'Patxi, oraindik eguraldi hotza e! Neuk esango dizut noiz'.

Garai bateko Frontoi Txiki- ren zer oroitzapen dituzu?

Atzo balitz bezalaxe akordatzten naiz frontoi zaharrarekin. Ez zen estalia. Ezker pareta egiten zuen antzinako etxe batek, goian balkoi eta leihoak zituen. Atzean, Takolo Txikineko taberna zegoen. Orain galduta dago, baina Azpeitiko esaera zen; pilota makala aurrean harrapatutakoan, begira zegoen jendeak, pilotariari deiar egiten zion: 'Kalerak!'. Pilota hura kaleraino ateratzeko, atzean kalea zegoelako.

Berria egindakoan majo al- datuko ziren kontuak, ezta?

Frontoiaren itxura guztiz aldatu zen. Orain, estalita, gauza ona du frontoi horrek. Nik beti esan izan dut frontoiak estalia izan behar duela euriarentzako, busti ez dadin; baina alboak-eta libre. Pilota poltsikoan duenak frontoia libre eduki dezala. Ez dadila *baratero* baten eskuetan egon, harek atea noiz irekiko zain. Nik Bergaran ezagutu dut hori. *Barateruak* frontoia irekitzen ez badu, kito! Eta euria egin arren, kantxa lehorra dagoenez, ba arazorik ez.

Egia al da dendan beti izaten zenituela pilotak, eskean jo- aten ziren mutikoei uzteko?

Bai. 'Patxi, pilotarik bai?'. Eta nik: 'Zer, entrenamendua?'. Hala uzten nizekien, 'gero bueltatu', esanda. Artilezko galtzetan sartuta, zintzilik, gordetzen nituen; kajoia, egurra, txarra da pilotarentzako.

Pilotarako afizioa bultzat- zeko beste bide bat zen, ezta?

Orain ere, han pasatzerakoan, mutikoren bat pilotan ari bada, gelditu eta begira egoten naiz. Orain ere finala irabazi dute Azpeitiko mutikoek. Ibili egiten direlako. Hor ez dago sekreturik. Batzuk abilagoak dira beste batzuk baino, baina ibili gabekorik, ez. Ibili gabe ezin da txapelik atera; ibili egin behar da, segi, eta segi.

Azpeitian lehen baino gehia- go ibiltzen al dira gazteak frontoian, ala gutxiago?

Orain ere dezentet ibiltzen dira. Lehenengo, frontoia behar da. Gaurko egunean badakizu nola dauden Zumaian? Frontoi zaharra bota eta berririk egin ez.

Azpeitian hainbeste urte eramanda, nola liteke Berga- rako hizketa hori ez galtzea?

Umea nintzela etorri banintz, tira, baina 24 urte nituen ordurako. Zaila izaten da hori. Berehalaxe igartzen didate.

Zuk euskararekiko eduki izan duzu beti halako zera bat...

Pixkat bai. Bergaran ikastolan, garai hartako ikastolan, ibilitakoa naiz, gerra aurretik. Gipuzkoako aurrenetako ikastola izan zen hura. Behar bezalako aurrena, bere ikasmahai eta behar bezalako irakasle eta guzti zituena. Gure ikastolan, beste eskoletan erderaz ikasten zituzten liburu berberak genituen, baina haietaz gain, euskara ere ematen genuen. Egundoko mapa ederrak genituen. Pareta batean, Euskadiko mapa handi bat; eta, bestaldean, goitik behera jaitsi eta jasotzeko aukera ematen zutela, Hegoamerika, Ertamerika, Ipar Amerika, Europa, Afrika eta Asiako mapak

geneuzkan, ederrak. Francoren tropak sartu zirenean, kanpora atera zituzten eta denak erretzen hantxe ikusi nituen. Negarrez joan nintzen etxera, haiek ikusita. Geure ikastola zen eta...

Azpeitiko Ikastolaren sorre- ran ere hortxe ibili zinen, ezta?

Bai, geuk ipini genuen. Sei-zazpi lagun elkartu ginen, ikastola sortzeko. Oso oroitzapen onak ditut. Jende ona zen, borondate onkoa. Ia egunero etxean afaldu ezinik, bateko eta besteko bilerak... Haiek bukatu eta etxera joatera-ko, 'las tantas', erderaz esaten den bezala. Baina gustura eta pozik. Lagun asko egiten da eta, gainera, garai hartan inguruko herri askotan ere hasi ziren ikastolak sortzen, eta denetara joaten ginen. Zumarragan, pasionistetan, hilean behin batzarra izaten zen; ikastola ia denetakoak joaten ginen hara, zeuden gorabeheretaz hitz egin, eta zer egin behar genuen jakiteko. Momentu txarrak ere izan ziren; Donostian eta, behe aldean, ikuskatzaileek ikastola batzuk itxi egin zituztela jakin genuen. Eta, noski, beldurrez, ikuskatzaileak noiz etorriko. Hari ere aurre egin behar zitzaion.

Kartzelan ere egon zinen, gera ondoan.

Kartzelan bi urte egindakoa naiz, 22 urterekin. Paperak ipintzen harrapatu gintuzten. Eta sost, barrura. Ondarretako kartzela utzi eta Martutenekoa inauguratutakoa naiz ni. Kartzela zaharretik be-



“Pilota poltsikoan duenak frontoia Libre eduki dezala”

“Martutenetik irten nintzenean ehun bat Lagun nituen zain”

rrira trasteak eramaten ibili ginen. Bietan egon nintzen. Bost ginen, Bergarakoak. Autobusean eramantzen gintuzten, goardia zibilek. 20-30 lagun izango ginen, herri ezberdinetakoak. 1948ko maiatzaren 3a zen. Martutenetik irten nintzen egunean, ehun bat lagun nituen zain. Gero nire emaztea izango zena, Juli, hantxe zegoen. Oso polita izan zen. Gizon bat, gure oso laguna zena, barruan gurekin egondakoa, oiartzuara, Gaztelumendi... Jakinaren gainean zegoen jendea. Ni asko ezagutzen ninduten, barruan denbora askoan egon nintzelako 'peku-lia' eramaten. Kartzelan 'peku-lia' esaten zaio diruari; aurrezki kutxa balitz bezala da.

Kartzelako bankaria zinen, orduan?

Bai, halako zerbait. '¿Oye, cuándo...?', galdetzen zidaten batzuk. '¿Qué, estás sin dinero?', nik. Nik ez neukan berez kargua, kargua nagusiak zeukan, uniformedunak; baina lanerako alper samarrak zirenez, guri lagatzen ziguten. Kartzelan zeuden emakumeengana ere joaten ginen, ordaintzera, pasieran hola [musuak botatzeko planta egiten du] eginez!

Azpeitiak zer egingo du aurtien Herriartekoan?

Ez dut esango irabazi egingo duenik, baina Gipuzkoakoan, hortxe-hortxe. Orain, Euskal Herrikoan ja...



Koldo Aldalur.

KOLDO ALDALUR pilotazalea

“Eboluzionatu duen pertsona bat da”

“Patxi Azkargorta lagun bat da niretzat, maitagarria. Eta, batik bat, eboluzionatu duen pertsona bat. Bere belaunaldiko ia denak Onaindiarekin, Barberitorenkin, Soroarekin.... gelditu ziren, pilotari zaharrek. Patxi, berriz, Rete-giri buruz hitz egiten ere badaki, Garcia Añorri buruz, Irujori buruz eta Olaizolari buruz ere bai. Badaki eboluzioa eman dela, materiala, pilotalekuak, pilotariak, eza-gutzen ditu. Lehendabizi, eta denaren aurretik, euskaltzale eta abertzale amorratua da. Eta, niri atentzioa ematen didana, oso dela gazte zalea”.

JESUS R. ARGANDOÑA ‘KEUTTIN’ Ilunpeko zuzendaritzakoa

“Guretzat ikurra ere bada Patxi”

“Gu hasi ginenean, Patxi eta Cesar Valverde ibiltzen ziren hor. Ilunpe soziedadea sortu genuenean zeozer egin behar genuela eta pilotari eustea pentsatu genuen. Orduan frontoi zaharra botata zegoen; hamar urtez-edo egon zen horrela. Betharramen ibiltzen ginen, eta han hasi zen gure harremana. Pilotazale bel-durgarria da; nahiz-eta semeak futbolekin ibili, pilotari emanda egon da zeharo. Gizon bezala, berriz, oso alaia da, beti laguntzeko prest dagoena. Guretzat ikurra ere bada Patxi. ”.



Jesus Ruiz Argandoña ‘Keuttin’.



Iban Otaegi.

IBAN OTAEGI pilotaria

“Harrobia eta erakustea da berea”

“Neurekin ez da asko ibili erakusten eta, baina beti egon izan da frontoian, eta gainean, zuzentzen, zerbait ikusten bazuen. Beti modu onean, gizon on bat bezala gogoratzen dut. Anekdotak zaharrak kontatzea gustatzen zitzaion; antzinako kontuak, berak esaten zuen bezala. Herriko pilotarien ibilbidea jarraitzea ere asko gustatzen zaio. Nik Elgetan jokatzeko nuenean, edo gero Peñarekin eta orain Larrañagarekin. Profesionalak ere gustatuko zaizkio, baina gazteak jokatzeko ikustea nahiago duela esango nuke. Harrobia eta erakustea da berea”.*

lora-etxea...

Kimubat

ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tfnoa.: 943 81 58 08

Faxa.: 943 15 03 62

Langilea, laguna

Euskal astoa berreskuratzeko sortu zuten Giasel elkarte eta hango kide da Joxemai Lopetegi. Hamar asto ditu baserri inguruak garbitzeko. 📞 Eneritz Albizu

Hizkuntza bat ez omen da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik. Hau honela ondorioztatu dezakegu, euskaldunok euskaraz hitz egiten jarraituz gero, bere etorkizuna bermatua dagoela.

Gauza bera gertatzen da euskal astoekin. Egun gero eta urriagoak dira, teknologia berriek baserritarren bizitza osoko laguntzaileak ordezkatu baitituzte. Baina, orain arte astoekiko fideltasuna erakutsi duten baserritarrek eurekin jarraitzen badute? Badirudi honela, astoen etorkizuna itxaropentsuagoa dela.

Euskaldunek ez dute euskal astoaren arrazaren amaiera ikusteko asmorik, eta hala, Gipuzkoako zenbait baserritarrek Giasel elkar-
tea osatu zuten duela 10 urte, astoak jabeari erakusten dion fideltasuna, jabeek abereei erakutsi asmoz. Gipuzkoa osoko hainbat herri-
ritakoak dira Giaseleko kideak eta guztien artean 150 asto dituzte.

Elkarte honen helburua, hasiera batean, Foru Aldundiak diru laguntza batzuk eskaini

zitzan asto zale talde bat osatzea bazen ere, gaur egun arraza hau mantentzeaz gain, babestea eta zabaltzea dute jomuga.

Honetaz gain, Gipuzkoan beren astoak kalifikatzeko zentro bat ezartzea ere lortu dute. Euskal astoak kalifikatu egiten dira hiru urte betetzean eta beren arrazaren izaera aitortzen zaie: oraingoz berrogeita hamar eme daude kalifikatuta eta sei ar.

Orain arte, gipuzkoar baserritarrek Bizkairaino joan beharra zuten euren abereekin beharizan hori egitera; baina gaur egun Gipuzkoan, Lazkaon, dute honetarako gunea. Duela urtebetetik, Giasel elkarteko kide da Joxemai lopetegi, eta Loiola auzoan duen Agerre baserrian hamar asto ditu: bi kume eta zortzi gazte. Haren esanetan, “lan handia zen asto guztiak hartu eta Bizkairano joatea. Orain, berriz, ia ez da ahalegin handia”.

Euskal astoa, asto berezia

Lopetegiren esanetan, astoenganako zaletasuna ez da txiki-txikitatik duen grina. “Duela

hamar bat urte, basoak garbitzeko erosi nituen asto batzuk. Ez ziren euskal astoak, ordea. Geroago azoka batean euskal arrazakoak ikustean, argi nuen arraza hura zela nahi nuena”. Pentsatu eta egin, kostatu bazitzaion ere, Bizkaian euskal astoak erostea lortu zuen: “Etxean izan bezain laster ohartu nintzen asto haiek bereziak zirela”.

Hala, laguntzaren batzuk jaso asmoz, Giasel elkarteko zuzendariarekin kontaktuan jarri zen: “Horrela hasi zen dena, eta orain bai, orain astozale amorratua naiz”.

Baina, zergatik dira desberdinak Euskal Astoak? Zer izan dezakete beste astoek ez dutenik? Lopetegik argi du euskal astoak ez daudela gainerako astoekin alderatzerik, “ez fisikoki, ez nortasun aldetik” ere: “Asto hauek besteak baino txikiagoak badira ere, gogor-
ragoak, biziagoak eta otzanagoak dira”. Gainera, euskal astoek geldotik ezertxo ere ez dutela dio: “Ikusi beharra dago larrean egiten dituzten lasterketak, ez dira geldik egoten; ikusten nautenean, berriz, bizkor asko etor-



|||“Euskal astoak besteak baino txikiagoak badira ere, gogorrakoak, biziagoak eta otzanagoak dira”

JOXEMAI LOPETEGI

Giasel elkarteko kidea



Joxemai Lopetegi astoei jaten ematen, Loiolako Agerre baserrian.

tzen dira nigana. Edozein lekutara jarraituko nindukete”.

Baserritarrak oso argi du teknologia berriak astoen menpe zeuden eremuak apurka-apurka betetzen ari badira ere, ez dagoela bere astoek egiten duten lana hobeto egiten duen makina edo tresnarik, “Sinesgaitza da nola garbitzen dituzten basoak. Astoek guk uste baino baserri gehiagotan burutzen dituzte lan asko, eta haien eragingarritasuna eta txukuntasuna ikusirik, gero eta jende gehiagok du uste on osoa haiengan”.

Arraroa badirudi ere, astoek lan asko egin eta ez dute ia lanik ematen: “tarteka jatekoa eman eta ongi dauden jakiteko begiratu bat botatzea besterik ez dute behar. Niretzat lan erraza da, etxe ondoan baititut”, gaineratu du.

“Langile onak, gogorrak”

Zein asto erosi zailantza duten baserritarrei euskal astoen alde apustua egitea gomendatuko liekela dio: “Ez nuke bi aldiz pentsatuko; ez dute arazorik ematen, langile onak eta gogorrak dira, portaera bikaina dute. Dudarik gabe, ez lirateke damutuko”.

Euskarazko entziklopedia laburrean “asto” hitza bilatu eta hala dio: “Zama aberea, zal-diaren antzekoa baina txikiagoa, belarri-luzea eta larru-latza”. Halere, argi dago astoa laguntzaile dutenentzat zehaztapen hori motz gelditzen dela eta esanahia falta zaiola. Egunero astoak elikatu, zaindu, horiekin lan egin eta larrean zein basoan saltoka ikusten dituzten pertsonak ez dituzte modu horretara ikusten astoak; beraientzat, pertsonak bezalaxe, asto guztiak ezberdinak dira, baina guztiak langileak eta fidelak.

Hau honela, badirudi astoak miresten dituzten bakarrak ez direla abere berezi hauen jabe diren baserritarrak bakarrik: Loiola ingurutik ibilalditxoak egiten duten jende asko gelditzen da astoei erreparatu eta eurekin argazkiak ateratzeko asmoz. Hauetako askok ikusmin handiz begiratzen omen dituzte gure protagonistak, baina beti aurpegi onez: bistan da abere zintzo eta leialak direla.✕



euskara eta komunikazioa

Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Web orrien diseinu eta programazioa
- Iragarkiak

haritz etxeberria 'ministro'



josu oiartzabal 'xenpelar'

(H)ika-mikak

Ministro. Azkenengo bertso eskolan Gurruk (14 urte) Eduardori (40 paseak) zuka egin zioan, eta Eduardok gaizki hartu zian.

Xenpelar. Nik ere zaharragoi zuka egiten zieat. Baina bertso eskolan koadrilakoak gaituk eta ez zaidak bururatzen zuka egitea.

Ministro. Kontua hori izango duk, Gurruk (bertso eskolan hasi berria) ez duela oraindik koadrila edo *kolegio* hori sentitu.

Xenpelar. Lehen hitza hika egiten al duk?

Ministro. Bai. Nire moduko eta edadeko jendeari hika egiten zieat. Baina Azpeititik ir-tetean, ulertzen ez didaten sententzioa pizten zaidak eta dena nahasten hasten nauk: hika, zuka, batua, lotua... Azkenean, zumaiar moduko euskalki arraro batean hitz egiten diat.

Xenpelar. Neskagunari nola egiten diok?

Ministro. Hori benetan xelebrea izan huan. Lardaxkan nenbilenean, hasi edo ez, hika egiten nioan, eta hasi ondoren zuka.

Xenpelar. Orduan, egun batean gu bikote izaten bagaituk, zuka egingo zioagu elkarri?

Ministro. Lasai, hori ez duk-eta pasatuko.

Xenpelar. Ezezagunen artean nagoela euskaraz hasten badituk lasaitu egiten nauk, eta hika egiten baditek beste konfiantza bat ematen zidatek.

Maiteari, zaharrei, nagusiari...

Ministro. Baditiat lagun euskaldun berriak eta esana zieat, gure laguntasunaren oztopo bakarra hika ez hitz egitea dela. Niretzat naturala hika duk, eta lagunekin natural ez hitz egiteak gure artean pareta bat sortzen dik.

Xenpelar. Nik emakume bati erraz egiten zioat zuka, baina gizonezko bati ezin zioat egin. Oso arraro sentitzen nauk.

XENPELAR. “Eta hire neska lagunari nola egiten diok?”

MINISTRO. “Lardaxkan nenbilenean, hasi edo ez, hika; hasi ondoren zuka”

Ministro. Ados nagok. Galtzen joan garela-ko izan duk, eta azkenean ohitu egin gaituk.


Xenpelar. Batzuk ohitu egin dituk euskaraz umeei eta txakurrei bakarrik egiten. Gainera, askok txakurrei zuka egiten zietek.

Ministro. Ez zekiat; zuka xuabe hitz egiteko (umeei, maiteari) erabiltzen diagu, normalean; errespetuz (zaharrei) edo hire gaineratik daudenei (nagusiak) hitz egiteko. Txakurrarekin zer harreman duten beraiek jakingo ditek, baina igoal izango duk besterik ez dakitelako.

Xenpelar. Filologoak ematen diagu, eta kallean kristorenak aditu beharko ditiagu.

Ministro. Hori ederra duk. Norbaitek irakurtzen gaituela esan nahiko dik, eta niri saltsa asko gustatzen zaidak.

Xenpelar. Hika, hika, hika... Badator Korrika!★



Hemen dator Korrika!

Apirilaren 7an Trebiñun hasi eta 17an bukatuko da Donostian. Hilaren 13an iritsiko da Azpeitira Korrika, eta euskararen alde pauso batzuk egiteko parada izango dute herritarrek.  Ainitze Agirrezabala

Bi urtean behin egiten den euskararen aldeko lasterketa apirilaren 7an hasiko da Trebiñun eta 17an bukatuko da Donostian. Apirilaren 13an, asteazkena, iritsiko da Azpeitia eta ingurutara Korrika. Egun horietan aukera ederra izango du nahi duenak euskararen alde metro edo kilometro batzuk egiteko.

Matxinbentara 15:00ak inguruan helduko da eta Urrestillatik pasatuta, Landetatik barrena, Zestoara joango da. Zestoatik bueltan, Azpeitian Etze Zuri paretik 18:00etan pasatuko da eta, handik, Azkoitiara joango da.

Korrika Txikia

Korrika kulturalaren barne, Korrika Txikia izango da herriko kaleetan barrena, eta Azpeitiko ikastetxe guztietako hurrek hartuko

III DATUAK

III **Zer.** Korrika euskararen aldeko lasterketa, eta Korrika Txikia. III **Eguna.** Apirilak 13 (asteazkena). III **Ordua.** 18:00 III **Tokia.** Azpeitiko kaleak eta plaza. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Korrika Batzordea.

dute parte. Igerilekutik aterako da 16:00etan eta hurrek Korrika Txikiko lekukoa ikastetxez-ikastetxe pasatuz plazan amaituko da, 16:45 aldera, festa giroan. Udaletxeko arkupetan umeentzako margo tailerra egongo da, eta ondoren, txokolatada.

Aurretik, hilaren 8an, 'Zenbait gazte ausart' Korrikako dokumentala eskainiko dute, Sanagustinen (22:30).✱

III EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETA

17

. **Korrika.** 1980. urtean antolatu zen aurrenekoz Korrika eta bi urtean behin egiten da euskararen aldeko lasterketa.

2.300

kilometro. Apirilaren 7tik 17ra bitartean kilometro horiek guztiak egingo ditu Korrikak.✱



Korrika 14 Azpeitian, 2005ean, Eskutzara bidean. EHE-eko Iñaki Martinez testigua eramaten.  Gari Berasaluze

III BESTERIK

1 Karnabaletako argazkiak

Aurtengo inauterietako sokamuturrari buruzko XXXII. Juan Antxieta Argazki Lehiaketako argazki erakusketa ikusteko parada izango da.

III **Eguna.** Apirilak 3tik 17ra.

III **Ordua.** Larunbat eta igandetan: 12:00-14:00; astegunean: 18:00-20:00.

III **Tokia.** Sanagustin kulturalunea. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Argazki Elkarte.

2 Liburu aurkezpena

Enkarna Arregirena da Uztarria Komunikazio Taldeak 2009ko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako seigarren zenbakia. Loiola auzoko Iturbide baserrian jaio zen Enkarna Arregi, 1940an. Besteak beste, moja eta Azpeitiko Ikastolan irakaslea eta administraria izan zen.

III **Eguna.** Apirilak 9 (larunbata).

III **Ordua.** 11:00 III **Tokia.** Baigerako ekitaldi aretoa.

III **Antolatzailea.** Uztarria.

3 'Klik Art' erakusketa

Udane Juaristi artista azkoitiarrak 'Klik Art' izeneko erakusketa jarriko du ikusgai.

III **Eguna.** Apirilak 26tik 30era

III **Ordua.** Larunbat eta igandetan: 12:00-14:00; astegunean: 18:00-20:00.

III **Tokia.** Sanagustin.

III **Antolatzailea.** Kilometroak 2011-Klik Ikuskizun Taldea.✱

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Antonio Rafaniello

HORTZ KLINIKA

Kolegiatu zk. 389



Enparan kalea, 8 - 1.
Telef. 943 81 67 36
AZPEITIA

Astelehenetik ostiralera

09:00 - 20:00

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ARETO
NAGUSIAN
Etorri aurretik
izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE APIRILAK 2

larunbata, 11:00 *master akademikoak*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI APIRILAK 2

larunbata, 11:00

IRUN APIRILAK 9

larunbata, 11:00


**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

ESKORATZA APIRILAK 14

osteguna, 18:00



HITZ GEZIDUNAK |||||




Egilea:
Luma

* Auto gidari azpeitiarra

HITZ GURUTZATUAK |||||

EZKER ESKUBI: 1. Goibeltasuna, tristura. 2. Kontsonantea. Distira, izpia. 3. Janari ongailua. Ez eme. 4. Kiroletako puntuei ematen zaien izena. Hurritzaren fruitu. 5. Urkatu aditzaren oina. Eliza kristau ortodoxoko gotazin. 6. Gauza. Itsasontzien albo. 7. Ipar Euskal Herrian jardun zuen euskal erakunde armatua. Fruitu mota. 8. Lanean ematen den denbora. Kontsonantea. 9. Erortze.

GOITIK BEHERA: 1. Tratuak egiten ditu, merkatari. 2. Kontsonantea. Larruazaleko gainalde gogor. 3. Modu ilunean. Harrapa ezan! 4. Erlijio baten barruan dotrina bera duen pertsona talde. Presio unitate. 5. Jaurtiketa. Kalika jokoan erabiltzen den makila. 6. Nire. hartzaren antzeko ugaztun haragijalea. 7. Bigarren pertsona. Ile hori. 8. Irautearen on-dorio. Bostehun, zenbaki erromaterren arabera. 9. Aurrean jokutzen duen futbolari.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	K	A	T	K	•	K	E	K	I	N	•
R	A	D	A	•	A	O	K	A	G	U	M
R	L	•	U	N	O	T	•	N	E	D	•
A	U	L	I	E	S	•	A	I	A	N	U
•	K	E	U	Z	•	N	U	A	T	I	•
A	S	A	P	•	R	A	T	Z	O	E	L
S	U	M	•	A	O	R	R	E	•	S	•
A	I	R	A	U	T	R	O	•			
K	A	U	S	T	E	I	A	D			
•	M	•	E	•	A	•	I	•			

HITZ GURUTZATUAK

I	D	L	A	I	R	O	R	E			
R	•	I	D	L	A	N	A	L			
A	N	A	N	A	B	•	K	I			
L	E	L	A	R	K	A	I	G			
E	P	O	P	•	A	K	A	U			
U	R	H	•	O	T	A	N	T			
A	R	•	E	R	K	U	Z	A			
U	R	U	N	I	E	L	•	R			
A	Z	E	T	S	T	R	I	T			

ZEIN DA?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Apirilak 22 (ostirala) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta opari PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI / ZER DAGO SOBERAN / ZER DAGO FALTAN.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

Uztarriaren Martxoko Argazki Lehiaketa

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



TEILATUKO APAINGARRIAK FALTA DIRA



IRABAZLEA



Marikarmen Borda Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 126. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Marikarmen Borda, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od
rio
z
ola

Azkura

Azaleko sentsazio desatsegina da, eta nahita edo nahi gabe hazka egiten dugu. Azkura fisiologikoa izan daiteke, edo gaitz baten ondorioa, eta jatorriaren bila hasteko bidea erakusten digu. Azkura, askotan, arintzen erraza da, baina sendatzen zaila.

Hotza, eguzki izpiak edo penizilina indizioak eta antzeko mila arrazoirengatik, batzutan jasan ezin dugun azkura sortzen zaigu.

Ukidurako alergia sortarazten dutenen (alergenoen) eragina jasaten dut: latex eskularruena, talko hautsena... eta horiek azaldu zaizkit 40 urtean kirofanoan erabili ondoren, eta neurri profilaktikoak erabiltzen saiatuta; horiek lortu duten gauza bakarra sintoma arintzea izan da. Badira zenbait material, biniola adibidez, azkurarik ematen ez dutenak, baina kirurgia lanetarako baldarrak dira.

Zenbait janarik (hestebeteak), diabetesak, giltzurrunetako arazo larriek, leuzemiak, zorriek, armiarma ziztadek, sarnak edo soriassiak ere azaleko azkura eragiten dute.

Jatorri ezezaguneko azkurak badira, horien tratamendurako asmakizun guztiek porrot egiten dute, erradioterapia tarteko. Azkuraren jatorria zein den jakitea ezinbestekoa da; hori lortzen badugu susmagarri guztiak saihestuko ditugu.*

||||||| **julian bereziartua** |||||



MAITE ETA ARANTXA SAGARNA tindatzaileak



1. Garbitzeko orbanik zailena?

Sedazko telan egindakoak.

2. Arropa jasotzera txintxo al dator jendea?

Oro har, bai. Zenbaitek, eleganteko trajea eguna arte ez du jasotzen, etxean enbarazu egiten dutela eta.

3. Zer egiten duzue jaso gabeko horiekin?

3 urtera Caritasera eraman.

4. Lanik gehiena noiz?

Sansebastianetan, komunio garaian eta inauterietan.

5. Anekdotarik?

Bodako soinekoa jasotzera 8 urtera etorri zen bat.

6. Juergaren tamaina arropan nabari al da?

Gazteen arropetan antzematen da gehiena.

7. Inoiz hondatu al zaizue arroparik?

Bai. Errua geurea denerako, aseguru badugu.*

✂ Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel./Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

IOSU
OPTIKA
Erdi kalea, behea z/g.
Tel. / Faxa: 943 15 12 91

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 - Fax: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

 **domusa**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO
MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Uztarria, 'Berria.info'-n

Topaguneak eta Berria taldeak edukiak elkarrekin banatzeko hitzarmena sinatu dute. Aurrerantzean, tokiko informazioa ere emango du Berria.info-k hasierako orrian.  Ainitze Agirrezabala



Uztarria.com-en argitaratzen diren albisteak *Berria*-ren webgunean ere irakurri daitezke. Aurrerapauso nabarmena egin du www.berria.info-k, tokiko in-

formazioa ere ematen hasi baita *Berria.info*-ko hasierako orrian. Batetik, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko bazkide diren tokiko hedabideen webguneetako albisteekin jarria automa-

tikoki *Berria*-ren webgunean txertatuko da. Albiste horiek ez ezik, herriko antolatuta dauden *Hitza.info* guneek sortzen duten jarioa ere agertuko da, baita Arabako *Aiaraldea.com* euskarazko atariak sortzen duena ere. Era horretan, Berria taldearen helburua ahalik eta herri gehienetako informazioa ematea da. Gainera, erabiltzaileak tokiko informazioa pertsonalizatzeko aukera izango du *Berria.info*-n. Alegia, informazio nazionalaz gain zein herritako informazioa jaso nahi duen aukeratu ahal izango du erabiltzaileak. Uztarria Komunikazio Taldea Topaguneko kide da, eta Urola Kostako *Hitza*-ren sortzaileetakoa.

Bestetik, herri informazioa jorratzen duten atariak aukera izan-

go dute *Berria.info*-k lantzen duen informazioaren jarioa euren webgune propioetan txertatzeko.

Topaguneak eta Berria taldeak edukiak elkarrekin banatzeko hitzarmen bat sinatu dute, eta argi dute euskarazko komunikazio proiektuak ez daudela egoera samurrean, finantza krisiak eta prentsaren eredu krisiak bat egin dutelako. Hori dela eta, Topaguneak eta Berria taldeak inoiz baino beharrezkoago ikusten dituzte elkarlana eta elkarrekintza. Bi komunikazio taldeen aldetik sortzen den informazioa irakurleei modu eraginkorragoan emateko bidea ikusi dute ekimen honen bidez.

Tokiko informazioa lehen ere *Tokikom.com* helbidean bateratzen du Topaguneak, eta pauso honekin zabalkunde handiagoa eman nahi diote herrietako informazio horri *Berria.info*-n.

Hitzarmenaren bidez, albiste jariatik jasotakoa paperean argitaratzeko eskubidea ere aitortzen diote elkarri sinatzaileek, betiere iturria ondo azpimarratuta. Hala ere, tokiko informazioaren iturrien alboan *Tokikom.com* ere nabarmenduko da *Berria.info*-n.✱

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Iturbideko alaba

Hogeitabost urterekin moja sartu bazen ere, ezin esan Loiolako Ikastolak bere bizitza markatu ez zuenik. Lanera joatea “plazerra” zen Enkarnarentzat. 📎 Uztarria

Enkarna Arregirena da Uztarria Komunikazio Taldeak 2009ko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako seigarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena; Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena; Valentina Agirre emaginarena hirugarrena; Santi Lazkano txirindulari ohiarena laugarrena eta Amaia Garmendia gitarrista eta animalistarena bosgarrena.

Loiola auzoko Iturbide baserrian jaio zen Enkarna Arregi, 1940an. Hogeitabost urterekin moja sartzea erabaki zuen, eta, ondoren, han eta hemen irakasle lanean aritu zen. Urte batzuk geroago, Azpeitiko Ikastolan irakasle izateko proposamena egin zioten, eta baita aukera aprobetxatu ere. Berehala, ikastetxean bertan, administrazio lanean hasi zen. Askok gogoratzen dute garai hura, izan ere, ikastolan sartu eta lehen harremana eskaintzen zuen emakumea zen, eta artean moja zenez, abitoa jantzita egiten zuen lana. Arregiren esanetan, “bi munduren artean bizi nintzen. Batetik, konbentuko itxitura eta konterbadurismo ildo hura. Bestetik, horrekin talka egiten zuen gazte mugimendua, joera berriak eta ikastolaren indarra. Ni komentuan kontraesanean bizi nintzen. Bi jainko ezin dira gurtu eta nire komentuko zuzendaritzako jainkoa eta nirea ez zen berdina”. Arrazoi horiek bultzata, 31 urtez abitua jantitza ibili ostean, moja bizitza lagatzea erabaki zuen.



Alexander Silva kazetariak idatzi du biografia eta apirilaren 9an aurkeztuko du Uztarriak. Aurrerapen txiki bat da jarraian irakur dezakezuen.

Iturbideko alaitasuna zainetan

Baserrian algarak, kantzak eta festa eguneroak ziren. Horrela gogoratzen dute bai Enkarnak, bai Imanolek, anaia zaharrenak. Enkarnak oso une politak gogoratzen ditu familiaz inguratuta. “Gauetan jolasteko unea iza-

ten zen. Eskolatik bueltan batzuk eta besteak beraien zereginetatik etxeratutakoan, sukaldean elkartzen ginen. Hura zen sozializatzeko gunea. Anaia txikiena, urtetxo bat besterik ez zuela, sukaldean aurrera eta atzera ibiltzen zen eta gu hari begira barrezka”.

Odolean dakarte iturbidetarrek festazale-tasuna. Imanolek kontatzen du: “Jatorduan, denok mahaiaren bueltan jarrita geundela, askotan esaten nion neure buruari: ‘Gaur Enkarnak ez dit bazkalduko!’. Halaxe izaten zen. Bazkaltzerakoan, edozer gauzogatik barre eginarazten nion, eta jateari utzi behar izaten zion”. Baina anai-arreba guztiak dira horrelakoak. “Iturbiden gripea ere ospatzen zela esango nuke”, dio Begotxu Azkuek, ikastolan urteetan Enkarnaren lankide izandakoak.

Imanolek, ordea, alaitasun hori azaltzeko baditu beste teoria batzuk; dena ez omen dator odolean: “Gerra garaia eta behar handia zegoen denbora hura ezagutu genuen. Gainera, gure ama oso sinestuna zen. Horregatik, gazte garaian asko eutsi ziguten, ez ziguten utzi jairik jai eta festarik festa ibiltzen. Gerora, atea zabalik ikusi genuenean, denak aztoratu eta horrelako familia alaia irten zen. Eskertzen dut gaztetan soka motzean lotu izana, bestela ez nintzen horrelakoa izango-eta! Imanol ez ezik, Imanoltxo izatera ere ez nintzen helduko”.

Baina Enkarna bereziki alaia dela diote guztiek, bai ikastolako lankideek, bai moja



1. Enkarna Arregi –abitu beltza jantzita– ama Maria Zubizarretarekin, koinatarekin eta ilobarekin, Iturbide baserri atarian. **2.** Iturbideko familia baserri atarian. Patxi Arregi eta Maria Zubizarreta senar-emazteak bost seme-alabekin: Aitaren mantalean Arantxa, amaren magalean Joanito, eta bien erdian Imanol eta Enkarna. Amaren eskubitara, Milagros. Gerora, beste bost seme-alaba eduki zituzten.

kongregazioan harekin batera egon zirenek, baita Imanolek ere. "Oso emakume alaia, lan-gilea eta trebea da Enkarna. Beti dago edo-zertarako prest eta oso mañosa da."

Bihotza erritmoa markatuz

1973an, Madrilen zegoela bihotzeko arazo bat topatu zioten medikuek Enkarnari. Txikitatik ahulezia, bular inguruko minak eta esfortzuak egiterakoan zailtasunak izan bazituen ere, inork ez zion ezer aurkitu. Baina Madrilen, lantokiko errebisio batean bihotzeko zain bat estututa zuela esan zioten.

Azaroa konpontzeko ebakuntza egin zioten. Iruñean operatu zuten Enkarna eta medikuaren aginduz etxean pasatu zituen egun batzuk, lasai-lasai baserrian. "Operatu berri-tan, erietxeko ohean nengoela, trikiti eta guzti azaldu zen Imanol; baita soinu eta panderoa astindu ere! A zer nolako poza hartu nuen!"

Ebakuntza ondo atera bazen ere, bere bizitza markatu zuen. Ebakuntzaren ondoren kla-seak emateko indarrak gabe gelditu zen En-

karna. Nola edo ahala moldatzen zen, baina ez zen erarik egokiena.

Bere egoera ikusita, kongregazioak Enkarnaren kasua aztertu zuen eta irtenbide bila Segoviako gogo-jardunetako etxera bidali zuten. "Bizitza lasaiagoa zen han, baina klimak ez zidan onik egiten. Bihotzaren arazo horrek nire bizitzaren erritmoa markatu izan du beti; baja asko hartu behar izan dut bizitzan zehar, baina ez zegoen besterik".

Imanolek ere gogoratzen du Enkarnaren ebakuntza: "Bihotzeko operazio hark markatu zuen bere bizitza. Gauzak ez ziren behar bezain ongi atera eta bizitza-erritmo lasai eta motelago batera ohitu behar izan zuen. Bestela, ziur nago azkenean beste ahizparekin batera, Arantxarekin, Venezuelara joango zela".

Ondoren, erretiroa

Moja bizitza laga ondoren ere urte pila egon zen lanean ikastolan. Enkarna 65 urte bete arte ez zen jubilatu. Behin adin horretara iritsita, deskantsua hartzeko garaia zela eraba-

LIBURUXKA

DATUAK

Orrialdeak. 50.

Neurriak. 10 x 8 zentimetro.

Tirada. 1.200 ale.

Prezioa. 5 euro (Uztariaren bazkideek doan jasoko dute).

16. PRODUKTUA

Aurreko 14 liburuxka. Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolarik ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Xanti Lazkano, Amaia Garmendia.

CDa. Urolaldeko bertso zaharrak.

ki bazuen ere, orain inoiz baino lan gehiago duela konturatu da. Ez dauka ezertarako tar-terik. Egunero pasiatzera irten, etxeko gauzak egin...

Hala ere, ez zuen dena sustraitik eten. Doresek oraindik gogoan du, "Enkarna jubila-tu eta oraindik hilabete batzuetan ikastolara etortzen jarraitu zuela, paper eta gauza asko egiteko laga zituela eta. Gauzak bukatu gabe ezin zituen utzi".

Emakume honen indarra ez da berehala etengo. Gainera, erretiroak ere ekarri dizkio onurak. Lanean zegoen bitartean pattal-pattal egon bazen ere, orain inoiz baino hobeto dagoela ziurtatzen du. Bere bizitzan egin duen guztiaz harro dagoela dio eta ez da ezertaz damutzen. Berrito jaioko balitz eta bere bizitza errepikatzeko aukera izango balu, beharbada bide bera aukeratu lukeela dio. Egindakoak bere alde onak ere izan ditu: "Kulturalki eta formazio mailan asko aberastu nintzen moja nintzen bitartean, baina pertsona eta euskararen arloan, ikas-tolak eman dit ni naizen guztia".

MADINA
ERRADIOLOGIA

- Hortz erradiologia digitala
- Ortopantomografiak eta teleradiografiak
- Inplantologiarako 3D hortz eskanerrak (100% manilar pelihula bakoitzeko)
- Ekografia, mamografia, hezur densiometria (Osteoporosi azterketak)

Toribio Etxeberria 4-1º Ezk. 20600 - EIBAR tel. 943 202857

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	0251 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (APIRILA)

EGUNEZ

1-4-5-6-7-8-9-10-19	2-3-14-18-26-30	11-16-17-20-29
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 811949	943 815974

GAUEZ

4-5-6-7-8-9-10	11-12-13-14-15-16-17-25-26-27-28-29-30	1-21-22-23-24
Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 811350	943 815974	943 852989

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 30ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEA

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA Asteguna: 09:00-13:30 Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** Astelehena: 14:00-21:00 Beste astegunak: 07:00-21:00 Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 Larunbata: 09:30-13:00 Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPOTXOKO** Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



GANADU FERIA.

Azpeitian ganadu feria, hilero, hirugarren asteazkenean (arratsalde), egin ohi da. Herriko plazan baserriko tresneria saltzeko posturen bat edo beste izaten da. Eta baserriar ugari.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

4-5-6-7-8-9-10	11-12-13-14-15-16-17-25-26-27-28-29-30	1-21-22-23-24	2-3	18	19-20
Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jacome (Azkoitia).
943 811350	943 815974	943 852989	943 851235	943 851966	94850660

MAILU AIZPURU

Azkoitian bizi den azpeitiarra

“Azkoitian oso ondo tratatu izan naute beti”

23 urte daramatza Azkoitian “oso gustura” bizitzen, baina ‘-xe’ azentua ez zaiola erantsi adierazi du.  Ainitze Agirrezabala

Ogixe ala ogiye?

Azkoitiar azentua ez zait erantsi. -Ye inondik inora galdu ez dudan gauza bat da.

Erraz joan zinen Azkoitira bizitzera?

Gaztetatik lagun oso onak izan ditut Azkoitian; mutila hangoa nuen, eta etxea zuen han. Balitz, aurretik Azkoitiarekin eta azkoitiarrekin kontakturik ez nuela, ba, igoal ez nintzatekeen joango. Baina, ez zitzaidan egin arrotza Azkoitira bizitzera joatea, duela 23 urte.

Azpeiti-Azkoiti xextran: mitoa ala errealitatea?

Mitotik asko du; pentsa zenbat bikote nahastu dauden. Bai azkoitiarrak Azpeitian bizi direnak; bai azpeitiarrak Azkoitian bizi direnak. Nik ez dut sekula pike hori bizi izan; oso modu naturalean bizi izan dut beti.

Azkoitian bizi zarenetik xanoago al zara?

Ez. Eta, ez dut uste azkoitiar bat Azpeitira etortzen denetik harroago izango denik. Hori topiko bat da. Hori da esatea bezala: azpeitiar guztiek zezenzaleak izan behar dutela.

Barriketatik edan al duzu urik?

Kar, kar, kar. Bai, edan izan dut.

Oteizaren frontoietan ibili al zara?

Ez.

Azkoitian duzun gustuko txoko bat?

Ez dut txoko berezirik. Gustuko jendea eta giro ona badut, lekuak ez dio axola.

Azpeitiarrak ez duten, zer ezaugarri on dute azkoitiarrak?

Ezaugarria nongoa den baino, gehiago da pertsonaren arabera. Niretzako beste horiek oso estereotipoak dira. Oso kajoi itxiak. Nik leku guztietan ezagutu dut denetako jendea.

Orain serio: zer moduz bizi zara Azkoitian?

Azkoitian oso gustura bizi naiz eta oso ondo tratatu izan naute beti. Nire eguneroko azpeitiar dosia beteta daukat, lana Azpeitian egiten baitut, eta Azpeitiko lagunekin ere harremana ez dut galdu. San Sebastian bezperan afaltzera etorriko naiz... horrelako protokoloak baditut. Hil arte azpeitiarra izango naiz.

Anaitasuna ala Lagun Onak?

Ni futbolar oso urruti harrapatzen nau. Azkoitiarra edo azpeitiarra den alde batera lagata, pertsona horien gertutasunaren arabera hartzen dut baten edo bestearen aldeko joera.*



1. Azpeitiko kalean ama Maritxurekin ateratako argazkia, bi urte zituela. 2. Maren eta Lander bikien ama da. 3. Ikasleekin egun batzuk pasatzera Linzara egindako irteeran.



Bukaera da

Bukaera da, bukaera aurre-
sentsitzen da arratsalde euritsua kamele-
oientzat”, horixe etorri zait gogora, itoizen
kantu eroa, ez dakit zer esan nahi duen ere,
nahiz eta hitz guztiak entenditzen ditudan,
baina ez daukat egoera hau deskribatzeko
beste hitzik, bukaera dela esatea besterik.
honek ez du itxura onik, mundua bukatzera
doa, ero hau gero eta okerrago dago, ero
dago, eta gaixorik. odola botatzen du komu-
nera joan bakoitzean, baina ez du medikuare-
nera joan nahi... orain lo dago, eta ni zain, ez
dakit zeren esperoan, baina zain, egunak noiz
argituko duen zain, eta eguna argituta ere,
zer, munduaren akabera da ekar lezakeen
gauzarik onena. hala balitz. lo datza gaixoa,
gau txarra izan du, oso. esnatzen denean
samur-era joko dut telefonoa –hor osakide-
tzari hots egitea bezala–, baina ez dakit, onik
ez da hemen, min handiak ditu, itxura txarra
du, itxura txarra gaixoak, itxura txarra egoe-
rak... valium pastila bi hartu dituela esan dit,
eta haiekin batera, botila hustu duela, ez niri
galdetu zer edan duen, honek berdin edaten
du- whiskytik eta pattarretik, vodkatik eta pa-
txaranetik. non zer harrapa ibili ohi da, horko
politikariak bezala, obra handiren bat erabaki
aurretik. ez alferrik esaten dute, eta egia
behar du izan, guggenheim egitea biasteri-
guardia inguruko bodegaren batean erabaki
zutela pnvebb horretakoek. eta jaurlaritzara
ere joan eta atean bertan esaten dizute,
“hobe lukete zerbeza hartzen geratu taberna
atariren batean, pentsatzen hasten direnean,
edo, okerrago, erabakiak hartzen, beti oke-
rrena asmatzen dute eta. hori adurra!”. holaxe
entzuna diet...

bakarrik utzi dute

loak hartu aurretik baietz esan dit, beharbada
hots egingo diola medikuari, beharbada hots
egiten utziko didala, zaineen indizioa sar die-
zaizoten, ez pentsa besterik, baina gero has-
ten da esaten ezetz, horrek ondorioak ekarri




|||||||miel a. elustondo|||||

|||||Nahiko tragedia bada
hemen, munduaren
akaberaren antza gero baino
gero handiago du honek,

ohi dituela, eta ezetz... aukeratzeko modurik
edukiko bagenu bezala... ez dakit etxera noiz
itzuliko naizen, beraren ondoan egon beharra
daukat, aste hauxe hemen pasa eta horra
buelatzeko ideia neukan, baina ez naiz bera
bakarrik uzteko gauza, berdin dio hau noiz
bukutzen den, eta nola, beraren ondoan
egon beharra daukat, inor ez dauka, bakarrik
utzi dute denek... eta hori ere ondo gauza
triste da, inor ez dator, inork ez du telefonoa
jotzen... hor etorriko dira gero, beleak, hau
eta hura beraien parte dela esanez... nik
ahal dudana guztia egingo dut, sendagai arin-
garriak eman diezazkieten eskatuko dut,
nahiz eta badakidan berak nahiago duela al-
kohola, era guztietakoa, zenbat eta gogorra-
goa hobe, puru-purua ematen ez badiot hala-
koren batean...

ez dizut besterik kontatu nahi, nahiko tra-
gedia bada hemen, munduaren akaberaren
antza gero baino gero handiago du
honek, horrela ote da, munduaren aka-
bera ote da... ”bukaera da,
bukaera aurre-
sentsitzen
da, arratsalde eu-
ritsua kamele-
oientzat...” ✨





Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehenengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com



eurotex
P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 8125 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es





Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora

Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!

hortz-klinika
AZPEITIAⁿ

MacBook berria 989,00€tik hasita



Belaunaldi berriko NVIDIA grafikoak



Iraupen luzeko 7 orduko bateria



Beirazko Trackpad Multi-Touch



Unibody karkasa iraunkorra

Ukabi Informatika

La Salbe 39 Behea - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) - Tel. 943 15 01 01